Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 3882 5XLVL-HPGC0-040AL F6245CCCF100C1D73DC047C38FAEB284D3BBD33B) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

*Ayuntamiento de* ***BARRUNDIA***
(ÁLAVA)

***BARRUNDIAKO*** *Udala*
(ARABA)

# ARABA EUSKARAZ ELKARTEA ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ozaetan, 2021eko maiatzaren 17an

## BILDURIK

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Amets Meatza Castañares jauna (NAN. 44.686.796-G), Araba Euskaraz elkartearen (IFZ: G-01400324) ordezkaria izanik, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

## AURREKARIAK

*LEHENA.-* Araba Euskaraz Elkarteak, Arabako Ikastolen Federazioarekin eta Laudioko ikastolarekin batera, 2021eko Araba Euskaraz eguna antolatuko du (2021eko ekainaren 20an).

*BIGARRENA.-* Araba Euskaraz Elkarteak, Araban urteotan erakunde, elkarte, talde eta euskaltzale askoren eta askoren aspaldiko bultzadaz hainbat gauza egin izan ditu euskara sustatzeko. Azken honek, gure udalerriari guztiz eragiten dio.

*HIRUGARRENA.-* Jaiaren helburua, Araba osoan euskara eta euskal kulturaren hedapena ahantzi gabe, helburu nagusia zera da, guztion ekarpena beharrezkoa den eremuan Laudio Ikastola garatzen ari den proiektu pedagogikoak behar dituen espazio arkitektonikoen egokitzapena, Ikastola eremua herrira zabaltzeko ekimena sustatzea eta aniztasuna eta inklusioari bideak eskaini ahal izateko errekurtsoak eskuratzea.

Honenbestez, Barrundiako Udalak eta Araba Euskaraz Elkartea erakundeak jarraian adierazitako hitzarmena sinatzen dute.

## HITZARKINAK

*LEHENA.-* Araba Euskaraz Elkarteak Araba osoan euskararen normalkuntza prozesurako urratsak egin ditu eta ahal duen neurrian, Barrundiako udalerrian.

DOCUMENTO
_CONVENIO: **Hitzarmena urtekoa 2021-ARABA EUSKARAZ**
IDENTIFICADORES
OTROS DATOS
Código para validación: **5XLVL-HPGC0-040AL**
**Página 2 de 2**
FIRMAS
El documento ha sido firmado por :
1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, de Ayuntamiento de Barrundia. Firmado 17/05/2021 12:32
ESTADO
**FIRMADO**
17/05/2021 12:32

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 3882 5XLVL-HPGC0-040AL F6245CCCF100C1D73DC047C38FAEB284D3BBD33B) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1



*BIGARRENA.-* Araba Euskaraz Elkarteak, euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduntzeko erremintak inplementatu ditu.

*HIRUGARRENA.-* Barrundiako Udalak Araba Euskaraz Elkartea erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 550,00 eurotako diru laguntza luzatuko du (2021eko Aurrekontu Orokorretako 335.481.001 partida).

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

| | |
|---|---|
| ALKATEA | ARABA EUSKARAZ ELKARTEA |
| Igor Medina Isasa | Amets Meatza Castañares |